

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Domingo Iriarte Astola

Aramaio, Araba
(1927-2012)

Aurkibidea



Biografia



Suñia auzoko Sakona baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen; ama, berriz, Untzilla auzoko Uxarte baserrikoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Auzoko eliza ondoko eskolan hasi zen sei urterekin. Gerra denboran ez zen eskolarik izan, eta gerraostean gutxitan joan ahal izan zuen eskolara. Arrasateko Kataide inguruan gerra aurretik zegoen "Mosaicos Omu" lantegian jardun zuen hiru urtez, baldosak eta harraskak egiten. Gero, Aretxabaletan igeltsero zebilen bere anaia batekin lanean hasi eta 18 urtez etxegintzan aritu zen, baserria zainduaz bat. Suñako etxe batzuk zuritzen edo ukuiluetan askak egiten ere jardun zuen. Gerra denborako hainbat kontu azaltzen ditu. Aretxabaletako Korueta (Goroeta) auzoko Markitegi baserriko Maria Antonia Errastirekin ezkondu zen.

Zintak

ARA-008

- **Proiektua:** Aramaioko euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina
- **Data:** 1996-11-23
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** VHS Standard

ARA-114

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-05-26
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Untzillako auzo-eskola

- **Erref:** ARA-114/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Auzo-eskolan ibili zen. Eskola, eliza ondoan zegoen. Suña eta Untzilla auzo bat dira, eta parrokia eta auzo-alkate bat dute. Aretxabaleta aldeko baserrietako umeak Untzillara joaten ziren eskolara. Galartza aldekoekin harreman ona izan dute beti.

2. "Ni gerrara boluntario inora ere ez!"

- **Erref:** ARA-114/003
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Errepublika garaian, Txominen anaia bat Katalunian egon zen soldadu. Gerra etorri aurreko egunetan, etxean zela, anaiaren kinto bat ihes egiten saiatu zen. "Ni gerrara boluntario inora ere ez! Deitzen digutenean, joan egin behar" esan omen zion anaiak kintoari. Txominen anaia miliziano egon zen; gero, "trabajadoretan".

Transkripzioa

-Ba, republikie? Bai, ba, bai. Gure anai nausixe onduantxe auen, e, zerien, ... republikien reboluziñue izen zan ba? Kataluñan!

-Bai.

-Soldau auen orduntxe. Soldau, bai. Ha soldau auen eta... Hak gero, gerrie urten auenien, ha etxien auen etorritte, treintaitresko kinttie zan-eta.

Treintaiseisien, gerrie urten auenien, gauza bat esango deutsut: Ba, ni mutikue, ba, beratzi urte gerrie urten auenien, ba, baiñe gero hamar urte eukiko nittuen, eta, urazkenien, baserrixen, ba, hemengo abanzioi izen zan udebarri zerien, aprilien, ezta? Baiñe, aprillen aurretik, urazkenien, basoa, harutze basoa, ire ebaitten, eta, hor Barajongo bat, gure anaien-eta kinttue, eta ni anaiaz, ni mutikue, anaiaz basoa eta, Barajongue, Trojaola, bidetik gora, eta esan eutsen, anaiek esan eutsen, e:

-E, noa hoie, kinto? Trojaola, noa hoie?

-Hi, banaixuek. Ez hator?

-Noa? Harutze?

-Ba, hemen e, lehengo egunien iñ neixoan... deskuiru bat iñ neixoan eta, atzien jabitzek eta, deskuidetan бага harrapauko justiek eta...

-Hi, Jaxintto! Neu gerrara boluntarixo iñora be ez naixuek. Ni gerrie lehen nak ikusitte! -esan eutsen.

-Gerrie? Bai! -gero konturetu- Karo! Hi otubreko reboluziñuen zerien, Barzelonan!

-Bai! Gerrie lehen nak ikusitte. Neu gerrara, boluntarixo, iñora be ez! Deiketan doskunien juen in biher -esan eutsen.

-Hi, ba, ni e... banaixuek.

-Bai, bai. Niatik badauket, libre dauket e! Heuk gure doken lekure! Baiñe libre dauket, heuk ikusi!

-Eta hori Trajaolaioi, miliziano juen zan?

-E?

-Trojaola hori miliziano?

-Ez! Hori juen zan... hemen euzen, e, bestiok, reketiok hor azen, hemen, Gellan, Atxabalta aldea sartute lehendik edo, geratute. Eta esan eutsen:

-Hi, nun egoten dien badakik gero, horreik zerok?

-Horreik? Etxabea fan hai, Etxabe, hor egoten dittuk, egoten diela esaten juek. Nik neuk ez jakixat ezer, egoten diela esaten juek. Eta, ba, han goitik trapu zuri bat edo zer bat ataraik eta [zertuta] hartuko haue.

-Hoixe in biheko joat, bestela, [disfrontaute] edo ez jakixat, tiron bat edo botako justiek eta ...

-Heuk Ikusi! Heuk ikusi! Heuk Ikusi! Kinttuek gaittuk -esan eutsen anaiek, neure anaiek- Kinttuek gaittuk, baiñe neu gerrara boluntarixo ez, e? Deittuko juskuk, derrigor juen biher juau gerrara, hori bajakixau. Zakuen gazak! Baiñe deiketan duskule, deiketan duskuen lekuen juengo gaittuk. - Anaiek hori esan eutsen, baiñe haek gerrie ikusitte eukelako. Gero ba, miliziano ibili zan. Hemen geratute auen eta, deittu eutsien eta, ba, miliziano. Ha ta beste anai bat be bai.

-Baiñe miliziano, Francokin ez.

-Ez! Francokin gero, baiñe...

-Klaro, klaro. Orduen, klaro, zure anaiek iñ eben soldauskie republikan.

-Bai, bai. Horreik, zera, han miliziano ibili zien, horreik. Eta horreik Bilbon, nire anaiek esaten joan Bilbon, zerien, pasau zien bestaldera ta, ba, bueno, gero ba, gero Trabajadorietan lanien.

-Egon zan, e?

-Bai.

-Klaro, zu mutikue ondion, bestela zeu be bai.

-E?

-Zu ondio mutikua ziñalako, bestela zeu be bai.

-Bai, bai. Beste anai bat neuken nik sei urte zaharraue eta ha justo-justuen librau zan. Sei urte zaharraue zan ha, cuarentaydoseko kinttie. Gerrie beste hiru hillebete tardetan badittu, hari be deittuko eutsien. Baiñe, ha kinttie ba ez zan...

3. Dotrina euskaraz

- **Erref:** ARA-114/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Untzillako auzo-eskolan erdaraz ikasten zuten. Burgosko maistra batek ematen zien eskola. Dotrina eskolaz aparte ikasten zuten; abade-etxean,

elizan... Abadeak ematen zien dotrina, eta euskaraz ikasten zuten. Gerra irten zen arte ibili zen eskolan; baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen.

4. Anaia "trabajadoretan" min hartuta

- **Erref:** ARA-114/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:57. **Bukatu:** 00:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Txominen anaia bat Katalunia aldean "trabajadoretan" zela bonba batekin zauritu eta ezkerreko eskua kaltetu zuen. Ezkerraldeko titia ere galdu omen zuen. Santa Agedako mediku batek sendatu zion eskua.

5. Anaiaren medikuetako ibilerak

- **Erref:** ARA-114/006
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:14:17. **Bukatu:** 00:19:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Txominen anaia bat Katalunia aldean "trabajadoretan" zela bonba batekin zauritu eta ezkerreko eskua kaltetu zuen. Ezkerraldeko titia ere galdu omen zuen. Haren medikuetako gorabeherak kontatzen ditu. Santa Agedako mediku batek sendatu zion eskua.

6. Frontea "armatu

- **Erref:** ARA-114/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Tropak nondik nora mugitu ziren azaltzen du. Aretxabaleta, Arrasate, Kanpazar... aldean soldaduak geratu egin ziren, eta frontea "armatu" zen. Aramaion lau guardia zibil omen zeuden.

7. Murugainen bandera gorria

- **Erref:** ARA-114/009
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:22:24. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Murugain mendian bandera gorria jartzen zuten milizianoek. Hura ikusitakoan, erreketek kentzera joaten ziren.

8. Milizianoek inguruak hartu

- **Erref:** ARA-114/010
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:26:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Etxean, gurasoak, anaia, arreba eta Txomin zeuden. Beste bi anaia milizianoek deituta joan ziren. Zemendia (azaroa) zen, eta gari-lanak egin zituzten egunez. Gauean, zalaparta handia entzun zuten. Eguna zabaltzean, milizianoak inguruko mendiak hartu zituztela ikusi zuten. Miliziano bat ezaguna zuten, eta harekin izandako elkarrizketa gogoratzen du.

9. Untzillan, ospitalea jarri

- **Erref:** ARA-114/011
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:26:41. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Milizianoek Suña eta inguruko mendiak hartu zituzten. Untzillan, ospitalea jarri zuten auzoko etxe batean. Milizianoek auzoko etxe batzuk hustu zituzten frontea bertan zegoelako. Txominen familia etxean geratu zen; ez zuten haiek adina arrisku.</p></div>

10. Untzillatik San Antonio aldera eraso

- **Erref:** ARA-114/012
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:28:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Sakona baserri inguruan bonbak jausi ziren. Untzillako elizatik San Antonio aldera, Gipuzkoako mugara, metrailadorearekin erasotzen omen zuten.

11. Bonbardaketak

- **Erref:** ARA-114/013
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Abioiak ere bertan ibiltzen ziren, eta beldurrez ikaratuta egoten ziren. Bonbardaketak egoten zirenean, gurasoak eta arreba etxean geratzen ziren; mutilak, berriz, bizilagunen txabola batean babesten ziren ardiekin.

12. Haurra jaio milizianoak auzoan zirela

- **Erref:** ARA-114/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:32:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Abadeak ihes egin zuen, eliza apurtu zuten... Auzoan ume bat jaio zen milizianoak ingurua hartuta zuten garaian. Haur hura bataiatzeko zer gorabehera izan ziren kontatzen du.

13. Milizianoak iratan lo

- **Erref:** ARA-114/015
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:32:02. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako azalpenak. Auzoan zeunden milizianoekin zer harreman zuten kontatzen du. Esnea erosi ohi zien milizianoek. Arditegiko iratan egiten zuten lo.

14. Eskolan ikasitakoak

- **Erref:** ARA-114/016
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:35:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako oroitzenak. Eskolan zer ikasi zuen: irakurtzen, idazten, matematikak (justukoa) eta sinatzen.

15. Baserriko lanetan lagun behar

- **Erref:** ARA-114/017
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:48. **Bukatu:** 00:37:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gerra pasatu ondoren, joaten zen eskolara baina ez beti. Etxean lagundu behar izaten zuen; aita urteetan aurrera eginda zegoen eta osasun arazoak zituen, eta anaia, berriz, gerratik eskuko ezintasunarekin bueltatu zen. Bost-sei behi, 50-60 ardi eta txahalak zituzten.

16. Erreketeek ardiak "harrapatu"

- **Erref:** ARA-114/018
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:37:01. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Gerra denboran, erreketeeen "abanzea" etorri zenean, Txominen etxeko ardi batzuk mendi aldera ihes eginda zeuden, baina gerrako hegazkinak batera eta bestera zebiltzanez ezin zuten haien bila joan. Erreketeek Txominen etxeko 19 ardi eta bildots aharia eurekin eman zituzten; auzoko beste ardi batzuk ere hartu zituzten eurekin.

17. Aita ardi bila joan

- **Erref:** ARA-114/019
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Gerra denboran, erreketeeek Txominen etxeko 19 ardi "harrapatu" zituzten. Auzoko beste baserri batzuetako ardiak ere hartu zituzten. Hiru baserriar elkartu eta ardi bila joan ziren. Ardiak aurkitu zituztenean, erreketeeekin zer gorabehera izan zuten kontatzen du.

18. Erreketeek ardiak saldu

- **Erref:** ARA-114/020
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:44:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra denboran, erreketeek Txominen etxeko 19 ardi eta bildots bat "harrapatu" zituzten. Erreketeek ardiak Arrasaten saldu zituzten gero. Txominen aitak ezagutu egin zituen bere ardiak, eta ardiak erosi zituen gizonari zer gertatu zen kontatu zion. Erreketeak bildotsarekin geratu eta banketea egin zuten harekin; zortzi egun baino lehenago hil omen ziren haietako bi.

19. Osabak egindako ore-mahai

- **Erref:** ARA-114/023
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:50:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren bi anaia eta amaren beste bi anaia Ameriketara joan ziren gerra aurretik. Aitaren anaietako bat arotza zen, eta jaiotetxerako oroigarri moduan "eromahai" (ore-mahai) bat egin zien. Gerezi-egurrarekin egin zuen altzaria.

20. Garia entregatu behar

- **Erref:** ARA-114/025
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:51:06. **Bukatu:** 00:52:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, garia entregatu behar izaten zuten. Jasotzen zuten uzta baino gutxiago jaso zutela esaten zuten, bestela gehiago entregazten zien. Gurdikada gari entregatu behar izaten zuten.

21. Baba lasto artean ezkutatu

- **Erref:** ARA-114/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:52:03. **Bukatu:** 00:54:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, baba konfiskatzen hasi ziren. Lasto artean ezkututzen zituzten bi-hiru zaku baba. Inspektorea herrikoa zen.

22. Arrasaterako errotara

- **Erref:** ARA-114/027
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:54:33. **Bukatu:** 00:59:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Errota

Laburpena:

Gerraostean, auzo-errota "prezintatuta" egin zuten. Gauetan, zigilua apurtu eta martxan jartzen saiatzen ziren. Arrasateko ferian hitz egiten zuten errotari batekin, eta gau partean joaten ziren haren errotara. Artoa eta garia eramaten zuten errotan ehotzeko. Errotariari baserríko txorízoa oparítu zioten.

23. Santa Agedako errotara

- **Erref:** ARA-114/028
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:59:27. **Bukatu:** 01:01:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Errota

Laburpena:

Auzoko errota itxita zegoenez, Arrasateko errota batera joaten ziren ezkutuan; errota hura ere itxi egin zuten, ordea. Gauzak horrela, Santa Agedako errota batera joan ziren. Hango gorabeherak kontatzen ditu.

24. 12 urterekin, auzo-errotara

- **Erref:** ARA-114/029
- **Iraupena:** 0:05:30. **Hasi:** 01:01:33. **Bukatu:** 01:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Baserría » Baserríko lanak » Errota

Laburpena:

12 urte zituela, gauez auzo-errotara astoarekin joan zenekoa kontatzen du. Anaia batek linternarekin seinaleak egiten zizkion guardia zibilak non ziren ohartarazteko. Guardia zibilak atzetik ibili zituen, baina ez zuten harrapatu.

25. Gari-jotzea

- **Erref:** ARA-114/030
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:07:03. **Bukatu:** 01:08:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Larrainean jotzen zuten garia; idi-parea eta trailuarekin. Gero, "matxakarekin" (motorrarekin) jotzen zuten garia. Suña auzokoak elkarri laguntzen zioten gari-lanak egiterakoan.

26. Suña eta Untzilla

- **Erref:** ARA-114/031
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:08:09. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Suña auzoari buruz hitz egiten du. Zazpi baserri-etxe daude Suñan. Gerra denboran, hainbat baserri erre ziren Untzillan.

27. Baldosa lantegian hiru urte

- **Erref:** ARA-114/032
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:14:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Arrasateko 'Mosaicos Omu' baldosa lantegian egin zituen hiru urte lanean. Lantegiko nagusiei buruz hitz egiten du.

28. Igeltsero lanak

- **Erref:** ARA-114/036
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:15:38. **Bukatu:** 01:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Igeltsero lanetan Aretxabaletan ibili izan da gehien bat; etxegintzan ibilia da. Hainbat lan aipatzen ditu. Auzoan, ganadu askak egindakoa da.

29. Itulan eta goldan, mutikotatik

- **Erref:** ARA-114/039

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:20:08. **Bukatu:** 01:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Itulan, goldan, aitzurrean... egindakoa da mutikotatik.

30. Aretxabaletako erromeriara joaten hasi

- **Erref:** ARA-114/041
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:21:51. **Bukatu:** 01:23:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erromeria kontuak. Domeketan, Aramaioko erromeriara joaten zen; Andremari jaietan abadearekin gorabeherak izan ziren herrian, eta festa galdu egin zen. Orduan, Aretxabaletako erromeriara joaten hasi zen Txomin. Suñan eta Untzillan festetan bakarrik egoten zen erromeria.

31. Herrian gorabeherak erromeriak zirela eta

- **Erref:** ARA-114/043
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:23:47. **Bukatu:** 01:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erromeria kontuak. Abadeak eragin handia zuen Aramaion: soinua jotzea bekatu zela, dantza egitea bekatu zela... esaten omen zuen. Abadearekin gorabeherak izan ziren herrian Andremari jai batzuetan: mutil batzuk guardia zibilen koartelera eraman zituzten; hori ikusita, neska batzuk euren borondatez koartelera joan ziren... Julian Angiozarko itsua soinujolea izaten zen Aramaioko festetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com